

**MANIFESTUA**  
**BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDU EGUNA, 2017ko**  
**maiatzak 13**  
***"Bihurriak izateko arrazoiak ditugu. Bidezko Merkataritza***  
***gara, eta zu?"***

Gaur, maiatzeko bigarren zapatu guztietan bezala, Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna ospatzen duten 50 herrialdeetako milaka pertsonekin bat egingo dugu.

Gaur berriro ere ospatuko dugu Bidezko Merkataritzaren mugimenduak bai Espainian bai nazioartean, pauso txiki baina trinkoak ematen jarraitzen duela guztiontzako mundu hobea bat lortzeko, gure jatorria zein den kontuan hartu gabe. Mugen eta interes ekonomikoen aurretik, giza eskubideak eta ingurumena zaintzea lehentasun ukaezinak diren mundu bat, alegia. Gaur, Bidezko Merkataritzaren mugimendua jai giroan dago, gure eguneroko konpromisoarekin, pertsonak, haien erkidegoak eta ingurumena bizitzaren erdian egotea posible egiten dugula ospatzeko. Azken finean, mundu hobea eta jasangarria bat, guretzat eta gure ondoren datozen belaunaldientzat.

Bai, beste mundu bat posible dela ospatzeko Eguna da. Baina baita, salaketak egiteko Eguna ere. Mundu mailan injustizia eta desberdintasuna areagotzen eta betiketuen duen sistema ekonomiko bat salatzen dugu. Aberastasun osoaren erdia %1ak eta gainontzeko %80ak aberastasun horren %6a besterik ez duen sistema bat. Emakumeek, elikagaien ekoizpenaren %80a sortzen dutelarik, lurraren %30a besterik ez duten sistema bat. 21 milioi pertsonak behartutako lanak, esklabotasun egoeran egiten dituzten mundu bat, non horietako 9 milioi neska-mutikoak diren, nekazaritza eta ehungintza sektoreetan. 275 milioi langilerentzat, enplegu bat edukitzeak bizitza duin bat edukitzea bermatzen ez duen sistema bat.

Ekonomia injustu hau, metaketa eta kanporatze ekonomia hau jendea kontuan hartzen duen, banaketa, eskubideak, zaintza, justizia eta berdintasuna defendatzen dituen ekonomia batekin ordezkatzeko posible dela ospatu nahi dugu gaur. Horregatik, gure Mundu Eguna geure burua bihurritzat hartzeko aprobetxatu nahi dugu. Bihurriak izateko arrazoiak dugulako.

**ONGI ETORRI BIHURRI IZATEKO ARRAZOA DUZUEN GUZTIOI!**  
**ONGI ETORRI BIDEZKO MERKATARITZAREN MUGIMENDURA!**